

HEZKIDE TZAREN PROGRAMA MA 19 - 20

**Berdintasun
ean Hazi eta
Hezi**



Berdintasunean Hazi eta Hezi

Udal-sail parte-hartzaileak:

Berdintasun Saila

Hezkuntza Saila

Liburutegia

Droga-mendekotasun Saila

Entitate eta pertsona laguntzaileak:

Maite Franko

Eva Perez - Perseo

Alara - Patata tropikala

Mirari Urkijo Celis

Images - audio visual y eventos

Borobil centro sexológico

Emagin Elkartea

Gehilan 2000 Consultoría de género

Geuz

Ubiqa



Leioa

UDALA-AYUNTAMIENTO
Hezkuntza eta Berdintasuna
Educación e Igualdad

AURKIBIDEA

Aurkezpena	1
1. Justifikazioa:	
1.1 Arau-esparrua	2
1.2 Koherentzia-beharra	3
2. Eskola mistotik hezkidetzeta-eskolara:	
Hezkidetzaren zutabeak	4
3. Hezkidetzeta Lehen Hezkuntzan:	
3.1 Sarrera	5
3.2 Berdintasunean Hazi eta Hezi Lehen Hezkuntzan	6
LH1 - EZ PRINTZERIK, EZ PRINTZESARIK	7
LH2 - KALEAN USO, ETXEAN OTSO	8
LH3 - HITZAREN ZUHAITZA	9
LH4 - MIRARIREN MUNDUAK	10
LH5 - ERABAKITZEN DUDANA IZANGO NAIZ	11
- BULLYINGAREN ETA ZIBERBULLYINGAREN AURKA	12
LH6 - TRATU ONAK	13
- DROGA-MENDEKOTASUNA	
GENERO-IKUSPEGITIK PREBENITZEA	14
4. Hezkidetzeta Bigarren Hezkuntzan:	
4.1 Sarrera	15
4.2 Berdintasunean Hazi eta Hezi Bigarren Hezkuntzan	
DBH1 - NEURE BURUA EZAGUTU, NEURE BURUA ONARTZEKO	17
- CINE FORUM: CARMEN Y LOLA	18
DBH2 - HECHOS SON AMORES	19
- JUNO	20
DBH3 - AUTODEFENSA FEMINISTA ETA MASKULINITATE BERRIAK ..	21
- SUFRAGISTAS	22
DBH4 - SEXUALITATEAK: BESTELAKOAK BAINA BERDINAK	23
- GIRL	24

AURKEZPENA

Hezkuntza da tinko erroturiko ohiturak, usadioak eta errealitateak aldatzeko gai den tresna bakarra. Hezkuntza errealitate pertsonalak aldatzen ditu, baina bizi garen gizartearenak ere bai; errealitate soziala eraldatzen du. Hezkuntza aipatzean, ezagutza-transmisioaz ari gara, bai, baina balio-transmisioaz ere bai, hori izanik benetan garrantzia duena eraldaketa sozialari dagokionez: enpatia, elkartasuna, desberdina den pertsonarekiko errespetua, eskuzabaltasuna...

Eta nabaria da aldatu behar dugun errealitate bat dugula, erein behar ditugun balio batzuk, eta historian zehar emakumeak jasan duen gutxiagotasun-egoeratik aterako duten balioak dira horiek, hain zuzen ere.

Denok jakitun gara emakumeen aurkako indarkeria eta, areago, emakumeen erailketa, hamarnaka eta hamarnaka urtero, izurri sozial bat dela, ezin larriagoa. Emakume horiek, guztiok, pairatzen duten/dugun desberdintasuneko eta gutxiespen sozialeko egoera batetik dator, eta hori, azkenean, hainbat diskriminazio-mailatara iristen da. Hori dela eta, hain zuzen, hezkuntzaren paradigma aldatu beharra dago. Ez da nahikoa eskola mistoak sortzea, diktaduratik irtetean egin zen bezala. Berdintasunean hezi behar da, hau da, nesken eta mutilen gaitasunak eta indibidualtasunak aitortu behar dira, haien sexua gorabehera, oztoporik ez mutilarentzat, oztoporik ez neskarentzat, bizikidetzak baketsua, aniztasunarekiko errespetua... Hezkidetzaz ari gara!

Eta hezkidetzak berekin ekarriko ditu genero-desparekotasunen ikuskera kritikoa, Historiako emakumeak ikusaraztea, ikastetxeko espazioen banaketa berria, harremanetarako eta jolaserako era berriak, bizikidetzak ardatz dela. Bai eta hezkuntza afektibo-sexualaz bereziki arduratzea ere, hura ez baita egungo curriculumean jasotzen. Arlo horretan, proposaturiko jardueren bidez, bikotearen eremuko diskriminaziozko harremanak xeheki deseraikitzeke lan egingo dugu.

Espero dugu material hauek baliagarriak izatea zuentzat, zuen hezkidetzak-planen helburuak lortzeko.

Enara Diez Oyarzun
Berdintasun eta Hezkuntzako zinegotzia

1. JUSTIFIKAZIOA

1.1. ARAU-ESPARRUA

Hezkuntza-sisteman, ugariak dira eskola mistoko eredutik hezkidetzeta-eskolako eredurantz aurrera egin dadin lan egiteko eskatzen duten arauak, gomendioak, planak eta abar. Azken eredu horrek pertsonen garapen integralean –sexuaren araberako estereotipoak eta rolak alde batera utzirik– eta diskriminazio- eta indarkeria-mota ororen arbuioan hezi beharko du. Erronka handia eta zaila, ezbaierik gabe, ikastetxeentzat.

Hori dela eta, Leioako Udaleko Berdintasun eta Hezkuntza sailek, beste udal-sail eta -zerbitzu batzuekin nahiz ikastetxeekin beraiekin lankidetzan, hezkidetzeta-programa bat diseinatzeke lan egin dute, udalerriko ikastetxeei laguntza emateko: “Berdintasunean Hazi eta Hezi - Crecer y educar en Igualdad”.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean (“Eskumenak eta eginkizunak” I. kapitulua, “Tokiko administrazioen eginkizunak” 7. artikulua, 1. puntua) xedaturik dago, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei –bai banaka, bai partaide diren udal-mankomunitateen bidez edo legearen xedeetarako eratzen dituzten mankomunitateen bidez– ondoko eginkizunak betetzea dagokiela: k) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek toki-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.

XI. legegintzaldirako EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planeko “Xedea: balioak aldatzea” hirugarren puntuan aditzera ematen da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren xedea botere publikoak gidatzea dela, zertarako eta bizitzaren arlo guztietan emakumeen eta emetasunaren mendekotasuna mantentzen eta justifikatzen duten balioak aldatzeko, eta balio horiek gizonak ere mugatzen dituztela erakusteko, nahiz eta botere-egoeran egon, patriarkatuak haien bizitzak ere baldintzatzen baititu, unibertetsala da-eta.

Balio aldaketa hori ezinbestekoa da giza garapen jasangarrirako, eta berekin dakar hainbat balio berri sortzea eta finkatzea, horiek androzentrismoaz, sexismoaz eta matxismoaz zeharkatu gabe.

Leioako 2019-2021 aldirako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planeko diagnostikoan jasotako hobetze-arloen artean (EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak aurkezten dituen printzipio eta esku-hartzeko ildoetarako 4 bateragarritasun eremu handitan taldekatuak), “Ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea eskubideak bermatzeko” eremuan, aditzera ematen da beharrezkoa dela ikastetxeekin hezkidetzeta-proiektuan lankidetzan jarraitzea, eta horretarako baliabideak esleitzea.

Azkenik, “EAEko Hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetzeta-plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023)” deritzon planean, gure autonomia-erkidegoan hezkidetzak duen egoera aztertzen da, eta helburuak ezartzen dira, hala planean nola aurkezten dugun programan definituriko hezkidetzaren zutabeetan oinarrituz. Han, hainbat entitate eta eragileren inplikazioa eta lankidetzeta –aurreko planean abian jarritakoak jada– beharrezkoak direla nabarmentzen da, hezkidetzeta-eskolako ereduari aurrera egiten jarraitzeko; eredu horretan, hain zuzen, helburua da sexismo-mota guztiak gainditzea, genero-berdintasuna lortzeko lan egitea, eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitu eta desagerraraztea, bai eta, azken batean, sexismoa jatorritzat duen edozein indarkeria ere.

1. JUSTIFIKAZIOA

1.2. KOHERENTZIA-BEHARRA

Arauek agindutakoaz gain, Leioako Udaleko Berdintasun eta Hezkuntza sailek atzeman zuten hezkuntzari loturiko zenbait alderdi, nolabait, era inkoherente batean lantzen ari zirela. Inkoherentzia horrek, kasu honetan, esan nahi du hainbat ikasmaitatan antzeko edukiak lantzen ari zirela, Udalak ikastetxeak berak bere kabuz lantzen zituen programak eskaintzen zituela, edo udal-sail batetik eta bestetik eskainitako edukiak, antzekoak ez baziren ere, arlo berekoak zirela, eta prestakuntza jardueretan hainbat enpresa erabiltzen zirela.

Aipatutako horrekin guztiarekin ez da esan nahi proiektu desegokiak izan direnik, baizik eta ordenatzeko, antolatzeko nolabaiteko beharra dagoela, programa artikulatu bat ezartzeko beharra, ikastetxe bakoitzak bere beharrian, ahalbide eta baliabideetara egokitu dezan.

Dagoenaren antolaketa-lanaren inertzia aprobetxatuta, espazio berriak sortuz joan gara, eta espero dugu ikastetxeei lagungarriak izatea hezkidetzak eskolarantz doan bide horretan.

Jakina, lan-proposamen bat da, inplikatu nahi dutenentzat, une oro irekia ideia berriei eta, ebaluazio egokiaren ondorioz, ikasturte bakoitzean alda daitekeena.



2. ESKOLA MISTOTIK HEZKIDETZA-ESKOLARA HEZKIDETZAREN ZUTABEAK

EAEko Hezkuntza-sistemarako II. Hezkidetza-plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean” gida-planean hezkidetzaren zortzi zutabeak aipatzen eta garatzen dira:

1. Pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean.
2. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista.
3. Emakumeen jakituriaren nahiz haien ekarpen sozial eta historikoaren integrazioa.
4. Gatazken eraldaketa baketsua, hezkidetzako elkarbizitza-proiektuen bidez.
5. Autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa.
6. Espazioak ikastetxean eta eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak.
7. Berdintasunezko hezkuntza afektibo eta sexuala.
8. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta indarkeria kasuetan esku hartzea.



Leioako Udaleko sailek ekarpenak egin dituzte zutabe horiek altxatu eta sostengatzeko; urteetan landu izan ditugu gatazken eraldaketa baketsua, hezkuntza afektibo-sexuala, sexu-aniztasuna, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko prebentzioa eta esku-hartzea... 2018-2019 ikasturtean ikastetxeetako espazioak eraldatzen hasi ginen, eta lan horretan ari gara gaur egun.

Programa honen bidez, bi helburu berri bete nahi ditugu: hezkuntzako baliabideak gehitzea eta aberastea, eta baliabide horiek behar duten koherentzia ematea.

3. HEZKIDETZA LEHEN HEZKUNTZAN

3.1. SARRERA

Haurrek erronka handi bat dute 6 urtetik 12 urtera bitartean: autonomia, hau da, era autonomoa funtzionatzen, erabakiak hartzen, asertibitatea garatzen... hasia. Horretarako, garatu behar diren ezinbesteko bi elementu daude: identitatea eta trebetasun sozialak, halakoek gainerako pertsonekin era egokian harremanetan ibiltzea ahalbidetuko diete eta. Bide horretan, helduak izan behar dituzte lagun, familia, hezitzaileak, aisialdiko begiraleak, komunitatea, oro har.

Haurrok berdintasunean hezteko unea da, nesken eta mutilen arteko harremanetan genero-ikuspegia sartuz. Programa honetan proposatzen diren jardueren bidez, asmoa da geure helburuetan aurrera egitea.

Adin txikienetik hasita, oraindik aurreiritzirik ez duten garaitik, alegia; horretarako baliatuko ditugun balioak, berdintasun-balioak ez ezik, irakurketa eta antzerkia ere sustatuko dituzte, bai eta emakumearen diskriminazioaren nahiz genero-rol diskriminatzaileen arbuioa ere. Hala, generoaren eraikuntza soziala eta hark genero-desberdintasunean eta genero-indarkerian dituen ondorioak deseraikiko dira Lehen Hezkuntzako 6. ikasmilakoentzako tratu onen lantegietan, edo, Emakunderen Gunearen Autobusean, 5. ikasmilako ikasleekin, harreman ez-diskriminatzaileak landuko dira, jolas-jarduerak batzuen bidez.



3. HEZKIDETZA LEHEN HEZKUNTZAN

3.2. BERDINTASUNEAN HAZI ETA HEZI LEHEN HEZKUNTZAN

PROGRAMA

EZ PRINTZERIK, EZ PRINTZESARIK HEZKIDETZAREN ALDEKO IPUIN-KONTALARIAK LH1 EUSKARAZ KULTUR LEIOA: LIBURUTEGIAN 1 H URRIAN - AZAROAN

Helburuak


- Tradizioz generoari lotu zaizkion estereotipoak eta rolak alde batera uztea, estereotipo sexistekin bat ez datozen pertsonaia batzuk erakutsiz.
- Emozio zintzoak eta afektuzko harremanak bultzatzea.
- Gatazkak era baketsuan ebaztea sustatzea (bizikidetzaz).

Azalpena

Ipuin-kontaktetako saio bat da, eta udal-liburutegian profesional batek emango du.

Izen ematea

Ikastetxeekin hitz egingo da.



**Arduradunak: Liburutegia
Laguntzailea: Maite Franko**

KALEAN USO, ETXEAN OTSO

ANTZERKIA ETA TXOTXONGILOAK

LH2

EUSKARAZ

KULTUR LEIOA:
AUDITORIUM

Helburuak

- Haurren begirada kritikoa irekitzea, aurreiritziak saihesteko.
- “Ez” esatearen garrantzia ulertzea (asertibitatea).

Azalpena

Antzerki-lan bat da, pertsona errealekin zein txotxongiokin, eta bi istorio gurutzatzen ditu.

Hiru txerritxoak desagertu dira. Otsoak desagerrarazi dituela dirudi! Otsoa da susmagarri nagusia. Fernandez eta Fernandez detektibeek ikerketa abian jartzen dute. Gauzak ez dira itxuraz ematen dutena. Txanogorritxu amamaren etxerantz doa. Ehiztariak eskoltatu egiten du, baina musu bat eskatzen dio. EZ EZETZA DA. Guztiek ez dute hori ulertzen...

Izen ematea

udalhezkuntza@leioa.net

946072576



Arduradunak: Berdintasun eta Hezkuntza Sailak
Laguntzailea: Alara, patata tropikala

HITZAREN ZUHAITZA

HEZKIDETZAREN ALDEKO IPUIN-KONTALARIAK

LH3

EUSKARAZ / GAZTELANIAZ

KULTUR LEIOA: LIBURUTEGIAN

1 H

URTARRILETIK AURRERA

Helburuak

- Hizkuntza ez-sexistaren erabileraz sentsibilizatzea.
- Ipuinen bidez genero-estereotipoak eta -rolak alde batera uztea.
- Giza eskubideetan genero-ikuspegitik heztea.
- Irakurketa kritikoa sustatzea.

Azalpena

Ipuinek irakurketaren munduan sartzen gaituzte, eta ezinezko abenturetara garamatzate, halaber; ideia eta balio sozialak irakasten dituzte, rolak legitimatzen dituzte, eta jarduteko eta identifikatzeko ereduak eskaintzen dituzte.

Hori dela eta, estrategia honetara itzultzen gara. Oraingoan, ipuin-kontalari komunitarioen baliabidea aprobetxatuta.

Liburutegian.

Izen ematea

Ikastetxeekin hitz egingo da.



Arduraduna: Hezkuntza Saila
Laguntzailea: Ubiqa

MIRARIREN MUNDUAK

IKUS-ENTZUNEZKO MATERIALA, HEZKUNTZA AFEKTIBO-SEXUALARI BURUZ

LH4

EUSKARAZ

IKASTETXEETAN

Helburuak

- Adingabeen autonomia pertsonala garatzea beren gorputzen zaintza eta higienezaren aldetik.
- Norbere burua maitatzen ikastea (autoestimua).
- Afektuaren eta tratu onaren garrantzia nabarmentzea.
- Adingabeen sexu-abusua prebenitzea.

Azalpena

Mirarik, 10 urteko gure youtuberrak, azaldu egingo digu nola ezagutu geure gorputzak eta nola hartu kontzientzia haien hazkundeaz, parekoen arteko nahiz helduekiko antzekotasunei eta desberdintasunei erreparatuz, gorputz-zaintzarako ohiturak garatuz, gorputza emozioen, sentsazioen, komunikazioaren, ugalketaren eta abarren iturritzat onartuz... eta sexu-abusuen prebentzioa nabarmenduko digu.

Bideo honetan oinarrituriko materialak (ez dira oraindik sortu), ikastetxeek beraiek prestatutakoak izango dira oraingoz.



Arduradunak: Berdintasun eta Hezkuntza Sailak
Laguntzaileak: Mirari eta IMAGES Audiovisuales y Eventos

EMAKUNDEREN 2019KO GUNEA “ERABAKITZEN DUDANA IZANGO NAIZ”

LH5

EUSKARAZ

EMAKUNDEREN AUTOBUSEAN

1H

URRIAREN 28AN ETA 29AN

Helburuak

Berdintasunari eta estereotipoak eta rol sexistak hausteari lotutako balioetan sentsibilizatzea.

Azalpena

Autobuseko dinamizatzailleek Nahiko programako jarduerak (formatu ludiko eta eraginkorra) erabiliko dituzte, ikasleen errealitatearekiko gertuko era batean eta haien adin eta eboluzioari egokiturik.

Jarduera horiek ikasle neska eta ikasle mutilen arteko bizikidetzeta eta harreman-giroa hobetzeko pentsatuta daude, bai eta berdintasunerako eta giza eskubideetarako hezteko eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko ere.

Izen ematea

Ikastetxeekin hitz egingo da.

Arduradunak: Berdintasun Saila
Laguntzailea: Emakunderen Berdintasunerako Gunea

ia Uzcudun
de Anoeta
Atzelari gisa
bilakatu zen.

ERABAKITZEN DUDANA IZANGO NAIZ

dudana

Berak argi dauka. Eta besteok?
Gizarte guztiaren ardurara da emakumeek nahiz neskek giza eskubideak askatasunez eta berdintasunean gauzatu ditzatela bermatzea.

EMAK
Berdintasunerako Gunea

MARTXOAK 8
Emakumeen Nazioarteko Eguna

ELIZEN BARRUTIA

BULLYINGAREN/ ZIBERBULLYINGAREN AURKA

LH5

EUSKARAZ

IKASTETXEETAN

2H

URTARRILETIK AURRERA

Helburuak

- Ikasleei tratu txarreko egoerak identifikatzen laguntzea.
- Indarkeria-mota guztien arbuioa sustatzea parekoen arteko harremanetan.
- Taldearen edo ikastaldearen erantzukizuna sustatzea tratu txarreko egoeretan.
- Ikasleen artean elkarri zaintza eta laguntza emateko jarrera garatzea.
- Jazarpen kasuetan sexismoak eta matxismoak duten eraginaz gogoeta egitea.

Azalpena

Programa honek behatzaile pasiboak inplikatzeko, hau da, eragozteko ezer egiten ez dutenak edo erasoarekin bat egin edo hura berresten dutenak. Arazoa da ez neskek ez mutilek ez dakitela zer egin, ez direla ausartzen edo ez direla kontziente, eta gakoa da tresnak ematea, "isiltasun-legea" hausten denean, jazarpena amaitu egiten delako.

Izen ematea

Ikastetxeekin hitz egingo da.

Arduradunak: Hezkuntza Saila
Laguntzailea: Geuz



TRATU ONEN LANTEGIAK

LH6

EUSKARAZ

IKASTETXEETAN

4H

MARTXOAN, APIRILEAN

Helburuak

- Anali kritikoa sustatzea generoaren eraikuntza sozialari eta hark genero-desberdintasunean eta genero-indarkerian dituen ondorioei buruz.
- Emakumeen eta gizonen arteko errespeturako eta eskubide- zein aukera-berdintasunerako balioak sustatzea.

Azalpena

Abiapuntutzat, oinarrizko kontzeptuei buruz ikasleek ezagutzen eta pentsatzen dutena hartuko da (sexua, generoa, haren eraikuntza soziala, emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunak, rolak, estereotipoak, erantzunkidetasuna...), eta ibilbide bat egingo da genero-diskriminazioak sortzen eta betikotzen dituzten kausa eta elementuetan zehar.

Diskriminazioak identifikatu eta gero, aldaketa bat sustatu nahi dugu, bidezkoa, berdintasunezko eta elkartasunezko gizarte bat lortzeko. Horretarako, funtsezkoa deritzogu gatazken aurrean indarkeria ezaren balioak eta jarrerak sustatzeari.

Izen ematea

Ikastetxeekin hitz egingo da.



Arduradunak: Berdintasun Saila
Laguntzailea: Gehilan2000

DROGA-MENDEKOTASUNA GENERO-IKUSPEGITIK PREBENITZEA

LH6

EUSKARAZ

IKASTETXEETAN

1:30 - 2 H

URRITIK MAIATZERA: ASTELEHEN, OSTEGUN
ETA/EDO OSTIRALETAN

Helburuak


- Droga bat zer den eta nerbio-sistema zentralari nola eragiten dion identifikatzea.
- Egiazko informazio objektiboa ematea hauei buruz: arrisku eta onurak, mitoak, legeak, epe laburreko eta luzeko ondorioak.
- Droga-kontsumoaren arriskuez, oro har, eta sexu bakoitzari lotutako arriskuez, bereziki, kontzientziaztea eta sentsibilizatzea.
- Kontsumo soziala lantzea eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak analizatzea.

Azalpena

Lantegi hauen bidez, substantzien kontsumoaren inguruko gogoeta eta kontrasterako espazio bat emango da (alkohola, tabakoa eta kanabisa), generoen arteko desberdintasunak nabarmenduta.

Izen ematea

Droga-mendekotasun Zerbitzuko teknikariak ikastetxeekin hitz egingo du.



Arduraduna: Droga-mendekotasun Zerbitzua

4. HEZKIDETZA BIGARREN HEZKUNTZAN

4.1. SARRERA

Neska-mutilek helduarorako aldaketa eta trantsizioko garai bat biziko dute 12 urtetik 16 urtera bitartean. Aldi kritiko bat da genero-estereotipo eta -rolak finkatzeko, eta jokabide-ohiturak eta balioak norbereganatzeko.

Eboluzio-aldi horretan, bikote-harremanak hasten dira, eta sustatu nahi dugu halakoetan tratu oneko harremanak izatea, errespetuan, berdintasunean eta askatasunean oinarrituak, "emakumeen aurkako indarkeria" prebenitzearren.

Hezkidetza baliozko tresna da, eta hemen aurkezten dugun programak Leioako ikastetxeen hezkidetza-planak batu nahi ditu, bizikidetza baketsua sustatzeko eta berdintasunezko herritartasun oso bat izateko baliabide gisa. Gazteak ere baliabidez hornitu nahi ditugu, maskulinitatearen eta feminitatearen irudikapenek, eta maila akademikoan eta profesionalean duten irudikapenak, hedabideen edo beste eragile sozial batzuen eragina jaso ez dezaten.



4. HEZKIDETZA BIGARREN HEZKUNTZAN

4.2. BERDINTASUNEAN HAZI ETA HEZI BIGARREN HEZKUNTZAN

PROGRAMA

NEURE BURUA EZAGUTU, NEURE BURUA ONARTZEKO

DBH1

EUSKARAZ

IKASTETXEETAN

2H

MAIATZEAN

Helburuak

- Harreman afektibo-sexualetan genero-ikuspegitik heztea.
- Nesken eta mutilen autoezagutza erraztea.
- Autoestimua era integralean sustatzea.
- Ikasleei baliabideak ematea, beren alderdi erotikoa zoriontsu izateko moduan adieraz dezaten.

Azalpena

Lantegi honen bidez, balioztat tratatu nahi ditugu gorputzak, feminitateak eta maskulinitateak, desberdintasuna. Asertibitateaz ere arituko gara, hau da, nahi dugunak duen garrantziaz, geure buruari balioa emateko.

Hainbat kontzeptutarako hurbilketa egingo dugu: sexualitatea, sexua, erotika, sexu-identitatea, desiorako orientazioa. Sexualitatearen inguruan dagoen informazioa itzelezkoa da, eta sexualki bizi eta adierazteko dauden moduen esanahia argitu beharra dago.

Izen ematea

Ikastetxeekin hitz egingo da.



Arduradunak: Berdintasun eta Hezkuntza sailak
Laguntzailea: Borobil

ZINEFORUMA: CARMEN Y LOLA

DBH1

GAZTELANIAZ

KULTUR LEIOA: AUDITORIUM

MAIATZAEN 8AN

10:00 - 13:00



Sinopsia

Carmen ijito-komunitate batean bizi da, Madrilgo auzo pobre batean. Belaunaldiz belaunaldi errepikatzen den bizimodu bat bizitzea da haren patua: ezkondu, eta ahal beste seme-alaba haztea. Egun batean, baina, Lola ezagutzen du: ezohiko neska ijito bat da, unibertsitatera joateko amesten du, txorien grafitiak marrazten ditu, eta emakumeak gustatzen zaizkio. Carmenek azkar sortzen du konplizitate bat Lolarekin, eta familien arbuioa ekarriko dien mundu bat ezagutzen dute.

Helburuak

- Aniztasunaren errespetua sustatzea eta diskriminazio-mota guztien aurka borrokatzea, segregazioa edo eskubideren baten galera eragiten dutenean (osasuna, hezkuntza, lana, etab.), sexu-orientazioan, genero-identitatean eta/edo sexuan, arrazan edo bazterketa justifikatzeko baliatzen den beste edozein gorabeheratan oinarriturik.
- Sexualitatea askatasunez bizitzeko pertsonen duten eskubidea errespetatzea, kasu honetan, emakume eta ijitoek.
- Zenbait testuingurutan, ijito-kulturan kasu honetan, emakumeak erabakiak hartzeko duen askatasunik ezaz gogoeta egitea.

Izen ematea

udalhezkuntza@leioa.net

946072576

Arduradunak: Hezkuntza eta Berdintasun Sailak
Laguntzailea: Eva Vazquez, Leioako Perseo zineforumeko arduraduna

HECHOS SON AMORES

DBH2

EUSKARAZ

IKASTETXEETAN

2H

OTSAILEAN

Helburuak

- Gazte jendearekin indarkeria matxistaren prebentzioa lantzea.
- Feminitate ahaldunduak eta maskulinitate berdinzaleak sustatzea.
- Maitasun erromantikoa eta haren mitoak deseraikitzea.
- Hainbat harreman afektibo-sexual mota erakustea, guztiak baliodunak.
- Gazte jendearen artean, bikote-harreman zintzoak sustatzea.


Azalpena

“Hechos son amores” film laburraren bidez eta metodologia aktibo eta parte-hartzezko bat baliatuz, espazio bat sortuko da, parte-hartzaile bakoitzak bere zalantzak, gogoetak, eta abar integratu eta garatu ahal izateko

Izen ematea

Ikastetxeekin hitz egingo da.

Arduradunak: Berdintasun Saila
Laguntzailea: Gehilan2000



ZINEFORUMA: JUNO


DBH2

GAZTELANIAZ

KULTUR LEIOA: AUDITORIUM

2020KO URTARRILAREN 31N

10:00 - 13:00



Sinopsia

Junok 16 urte ditu, eta, helduen arabera, komeni zaion baino azkarragoa da. Burutsua, ikasia, oharkorra eta, batez ere, sarkastikoa da.

Sarkasmo hori babes moduko bat da, besterik ez, bere beldurrak eta zalantzak ezkutatzeko. Ikaskide batekin duen harremanaren ondorioz, haurdun geratu da. Eta mutila arazoaz arduratzen ez denez, Junok familiak onartzen duen erabaki bat hartzen du: umea adopzioan emango du.

Helburuak

Hainbat gai trata ditzakegu, hala nola ama-nahia, abortua eta adopzioa, edo ikasturte honetarako hartu dugun helburuetako bat, “maitasun-harreman zintzoak”, lantzeko. Maitasuna ez da filmaren gai nagusia, baina ikusten dugu nola hura sendotasunez eta oso era positiboan bideratzen den, sentitzen duten pertsonentzat.

Izen ematea

udalhezkuntza@leioa.net

946072576

Arduradunak: Hezkuntza eta Berdintasun Sailak
Laguntzailea: Eva Vazquez, Leioako Perseo zineforumeko arduraduna

AUTODEFENTSA FEMINISTA ETA MASKULINITATE BERRIAK

DBH3

EUSKARAZ

IKASTETXEETAN

MARTXOAN

2H + 1 H

Helburuak

- Egiturazko genero-oztopoez gogoeta egitea.
- Ikuspuntu kritiko batetik patriarkatuak gure gizartean sortzen dituen ondorioak aztertzea.
- Nesken ahalduntzea bultzatzea: gaitasunak, trebetasunak eta arlo guztietako protagonismoa norbereganatzea eta sendotzea.
- Maskulinitate hegemonikoa desmuntatzea.
- Neskak zein mutilak kontzientziatzea matxismoa indarkeria dela.

Azalpena

Bereiz lan egingo da neskekin eta mutilekin. Talde bakoitzak lan desberdina egingo du. Neskekin, ahalduntzea landuko da, genero-rol eta -estereotipoen analisi kritikoak eginez. Mutilekin, maskulinitate hegemonikoen deseraikuntza landuko da, rol eta estereotipo eta/edo jarrera matxistak analizatuz eta bertan behera utziz.

Izen ematea

Ikastetxeekin hitz egingo da

Arduradunak: Berdintasun Saila
Laguntzailea: Emagin



SUFRAGISTAS ZINEFORUMA

DBH3

GAZTELANIAZ

KULTUR LEIOA: AUDITORIUM

OTSAILAREN 28AN

10:00 - 13:00



Sinopsia

XX. mendearen hasierako mugimendu sufragista oldarkorragoa da Ingalaterran, beste herrialde batzuetan baino. Sufragista gehienak ez ziren goi-mailako klasekoak, langileak baizik, eta ezintasunez ikusten zuten nola ez zuten ezertarako balio haien protesta baketsuek. Jende gehienak arbuiaitzen zituen, eta berezko banderen eta sinbologiaren bidez bereizten ikasi zuten; azken horrek, gainera, talde gisa kohesionatzen lagundu zien. Botoa aldarrikatzen zuten, baina hori baino askoz gehiago bazen, gizartean zegokien tokia eskatzen zuten, pertsona eskubidedunak zirela aitortzea.

Helburuak

- Emakumeen zapalkuntzaren genealogia berreskuratzea eta sortzea.
- Hainbat emakume ikusgai bihurtzea, zeinak inoiz imajinatuko ez zituzten etorkizunak landu dituzten, eta ez bakarka.
- Feminista izateak dakarren sakrifizioa erakustea eta, gizonei kenduta, feministok pribilegioak nahi ditugulako ideia desagitea.
- Iruditeria bat eraikitzen hastea, non feministak mundu bizigarriago eta zoriontsuago bat lortzeko kausa justu baten aldeko borrokalaritzat defendatzen diren.
- Gizonezko hainbat pertsonaia aliatutzat erakustea.
- Inklusioa eta ez-baztertzaileria den borroka nabarmentzea.

Izen ematea

udalhezkuntza@leioa.net
946072576

Arduradunak: Hezkuntza eta Berdintasun sailak
Laguntzailea: Eva Perez

SEXUALITATEAK: BESTELAKOAK BAINA BERDINAK

DBH4

EUSKARAZ

IKASTETXEETAN

2 H

MAIATZEAN

Helburuak

Ezagutza fisikosexualak norbereganzeko osasun sexual eta emozionalako hezkuntza bat sustatzea.

- Norbere osasuna nahiz besteena zaintzeko trebetasunak lortzea infekzioei dagokienez.
- Kontrazepzioaren erabileraz sentsibilizatzea.
- Harreman zintzoak sortu eta mantentzeko gaitasunak norbereganzatzea.
- Adimen emozional eta sexuala garatzea, bizitza sozial eta emozional oso-betea izateko.

Azalpena


Ezagutza landuko dugu, kromosoma baten ondorioz edo genitalen kanpo-itxuraren arabera sexuaturtako izakiak izateaz harago.

Jaio aurretik hasi, eta heriotzarekin burutzen den prozesu bat da, eta kasu bakoitzean bakarra eta errepikaezina da. Bi sexu daude, gizona eta emakumea, baina gizon edo emakume gisa norbere burua eraikitzeko era asko. Halaber, gizon edo emakume gisa bizitzeko era asko dago. Norbera ez da beti era berean bizi gizon edo emakume gisa, eboluzionatu, aldatu egiten da, beste esanahi eta balio batzuk eranstean dira.

Izen ematea

Ikastetxeekin hitz egingo da.

Arduradunak: Hezkuntza eta Berdintasun sailak
Laguntzailea: Borobil



ZINEFORUMA: GIRL

DBH4

GAZTELANIAZ

KULTUR LEIOA: AUDITORIUM

10:00 - 13:00

URRIAREN 25EAN

Sinopsia

Lara, 15 urteko neska transgenero bat da; dantzari profesionala izan nahi du, eta aita eta ahizparekin beste hiri batera aldatzen da, dantza-akademia ospetsu batera joateko. Hormonak ordezteko terapia bat jasotzean, sexua berriz esleitzeko ebakuntza baterako prestatzeko, frustratua sentitzen da, tratamendua oso motel doalako. Akademian, zakila zinta itsasgarri estaltzen du ballet-eskoletan, eta horrek osasun arazoak ekarriko dizkio. Gainera, eskolakideen jazarpena pairatuko du.

Helburuak

- Genero-identitatearen kontzeptua ulertzea; izan ere, sexu biologikoarekin zertan bat etorri ez duen kontzeptu bat da.
- Sexu biologikoa eta genero-identitatea batera ez dituen pertsona batek aurre egin beharreko arazoak agerian jartzea.
- Sexu-orientazioak genero-identitatearekin zerikusirik ez duela ulertzea, ez eta sexu biologikoarekin ere.
- Hezkuntza-eremuko jazarpen LGTBifobikoaren aurka borrokatzea.
- Aniztasunaren errespetua sustatzea eta diskriminazio-mota guztien aurka borrokatzea, segregazioa edo eskubideren baten galera eragiten dutenean (osasuna, hezkuntza, lana, etab.), sexu-orientazioan eta/edo genero-identitatean oinarriturik.

Izen ematea

udalhezkuntza@leioa.net

946072576

Arduradunak: Hezkuntza eta Berdintasun sailak

Laguntzailea: Eva Perez, Leioako Perseo zineforumeko arduraduna





Ramón Aketxe plaza-4. solairua

berdintasuna@leioa.net

hezkuntza@leioa.net

94 6072570

www.leioa.net

